

Grafika Teknologikoa Erakusketa proiektua

Susana Jodra Llorente

Ikasle kaiera

IKD baliabideak (2013)

AURKIBIDEA

IKASLEAREN GIDA

1). Galdera eragilea	3
2). Eszenatokia	3
3) Proiektuaren helburuak	3
4). Metodologia	5
5). Entregagaien zerrenda eta behin behineko emaitzak	8
6). Ebaluaketa sistema eta notak jartzeko jarraituko diren irizpideak	9
7). Lanaren plangintza	11
8). Baliabideak eta materialak	16

ERANSKINAK

1. Eranskina. TENTACIONES	18
2. Eranskina. erakusketa proiektua eta dossiera ebaluatzeko errubrika	20
3. Eranskina. Taldeko karpeta ebaluatzeko errubrika	22
4. Eranskina. Ahozko aurkezpena ebaluatzeko errubrika	24
5. Eranskina. Triptikoa ebaluatzeko errubrika	26
6. Eranskina. Lan kooperatiboa ebaluatzeko errubrika (taldeko funtzionamendua)	27
7. Eranskina. Ikaslearen fitxa	29
8. Eranskina. Taldeko partaideen arteko kontratua	31
9. Eranskina. Taldearen funtzionamenduaren ebaluaketa	32
10. Eranskina. Taldekideak ebaluatzeko errubrika	34
11. Eranskina. Bibliografia	36


IKASLEAREN GIDA

1) Galdera eragilea

*Inprimaketako teknika anitzak konbinatuz, **Estampa** feriaren barruan TENTACIONES izeneko deialdian erakusketa proposamen bat egiteko gai zarete?*

2) Eszenatokia

Estampa arte multiplearen edo anitzaren inguruan urtero antolatzen den feriaren barnean artista berrientzat edo hasi berrientzat TENTACIONES izeneko alorra dago. Urtero curator gonbidatuak gai bat proposatu eta artistek, gaiaren inguruan eta arte multiplearen barnean erabil daitezkeen baliabide zabalak direla medio, erakusketa bat egiteko proiektua aurkeztu ahal dute. Antolatu beharreko espazioa eta gaia oinarria izanik, zuen taldeak bertan erakusketa interesgarri bat aurkezteko proposamen bideragarria egin behar du.



Betekizunak

Proiektu hau aurrera eraman ahal izateko beharrezko betekizunak:

- Grabatua eta Inprimaketako teknika desberdinak erabiltzea eta elkarren artean konbinatzea (Copy-grabatua, transferra, fotoxilografia, serigrafia).
- Irudiak eraldatzeko programa informatikoak erabiltzea, ad. Photoshop.
- Baliabide analogikoak eta digitalak era sortzailean erabiltzea eta konbinatzea. MULTI-TRANS-INTERdisziplinaritatea jorratuz. Teknikak sormenerako tresnak dira, sormenaren esku, ez dute hau muagtu edo eragotzi behar.

3) Proiektuaren helburua

Proiektu honekin lortu nahi duguna, ikas helburuak, ze gaitasunak bereganatuko dituzue

Proiektua burutzeko garatuko diren edukiak honako hauek dira: eremu analogikoak (teknika grafikoetako baliabideak) eta digitalak (irudiak garatzeko programa informatikoak eta bestelako baliabideak) konbinatzen direlarik:

Behin proiektua bukatu ondoren honako ikas helburuak lortu edo bereganatuak izango dituzue:

- Sorkuntza grafikoan parte hartzen duten teknika, baliabide eta sistema desberdinak erabili eta menperatzea
- Sorkuntza artistikoko prozesuetan eremu grafiko analogikoak eta digitalak elkartu.
- Inprimaketako sistema desberdinak erabili eta bestelako prozesuekin bateratu, esperimentazioari eremu zabala utziz.
- Proiekturako egokienak diren baliabideak, euskarriak eta formatu egokienak aukeratu eta guztien artean aurrera eraman
- Taldeka lan egin eta proposamenak bateratu
- Proposamena garatu eta publikoki aurkeztu, horretarako egokienak diren euskarriak analogikoak edo digitalak erabiliz.

Gaitasuna Zehatzak

- G1.** Sormen grafikoak parte hartzen duten teknika, baliabide eta sistema desberdinak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.
- G2.** Sormen artistikoko prozesuetan eremu grafiko digitalak elkartzeko gai izatea
- G3.** Inprimaketako sistema desberdinak ezagutu eta bestelako prozesuetan bateratzeko gai izatea

Zeharkako gaitasunak

- G4.** Taldean lan egin eta parte hartzeko gai izatea, hartu emanak bultzatuz.
- G5.** Egindako lana eta lortutako emaitzak, beharrezko baliabideak erabiliz, publikoki aurkeztu eta defendatzeko gai izatea

3. mailarekin erlazionaturiko gaitasunak

- C3.** Gertaera artistikoak eta hauek sortzen diren testuinguru sozialaren artean dagoen erlazioa modu kritikoan ulertzea.

- C4.** Teknika bakoitzarentzat prozedurazko beharrezko baliabideak erabiltzea: Pinturako, Eskulturako, Irudigintzako, Argazkigintzako, Ikusentzunezko eta Baliabide Teknologikoko eremuetan propioak diren prozesuak, prozedura eta materialak.
- C5.** Proiektu artistiko jakintza-alor bakaneak eta jakintza-alor anitzekoak planteatzeko eta garatzeko gai izatea

4) Metodologia

Ikasgaia bi ataletan banatzen da. Lehenengoan, hemen aurkeztu dugun taldeka proposaturiko erakusketa proiektu bat aurrera eramane beharko da. Horretarako teoria eta praktika lantzen joango gara, sortzen diren beharrei aurre eginez. Lana gidatzeko hainbat jarduera eta entregagaiak burutu beharko dira, ebaluaketa jarraia izango delarik. Sormenaren eremu zabalean lankideki arituz talde bakoitzak emaitza desberdinak lortuko ditu. Era honetan proiektu interesgarriagoa burutzeko gai izango zarete

Ikasgaiaren edukiak proiektua asmatu eta aurrera eramane ahal izateko sortzen diren behar eta zalantzen arabera taldeka landu, txostenak prestatu eta klasean aurkeztuko dituzue (pdf).

8 asteko lana izango da, astero ordu bat mintegia klasea banaturik edo 2 ordu mintegi denok elkarrekin, eta 3 ordu tailer industrialak dutelarik (4-5 ordu presentzial). Guztira 32 ordu presentzial eta 48 ez presentzial.

Tailerreko ordu praktikoak ahalik eta modu eraginkorrean erabiltzeko (bertan soilik izango bahi dituzue eskura makinak eta material konkretuak), ezinbestekoa izango da klasetik kanpo lana antolatzea eta garatzea. Taldearen bilerak maiztasunez programatu eta antolatzea ezinbestekoa izango da. Hobe bilera laburrak eta eraginkorrak izatea, kideak eginbeharreko lana eginda eramanda, luzeak eta denboran oso banatuak izatea baino.

Taldearen eraketa

Taldeak 3 ikasle osatuko dituzte. Zeuen artean ados jarriko zarete taldeak eratzerako orduan. Ikasgaia mintegietan eta tailerrean banatuta izanik, taldeko partaideak mintegi berean egon beharko dira. Ala ere, klasearen dinamika eta ikasle kopuruaren arabera mintegiak bateratzea posiblea izan daiteke, denen artean adostu ondoren

Taldearen eraketan arazoak izango balira, irakasleak azken hitza edukiko du, hurbiltasun geografikoa eta ikasleek aukeratutako ildo akademikoa kontutan izanik (ikaslearen fitxa)

Taldearen parte izatea onartzean, hartzen duzuen elkarrekiko konpromisoa argi izan behar duzue. Elkar lana ala izango dela ziurtatzeko zeuen artean irizpideak ezarri eta konpromisoa sinatu beharko dute (kontratua).

Taldean lankideki aritzea

Taldean aritzea, ez du esan nahi lana banatzea solik. Proiektua aurrera atera ahal izateko lankideki aritu beharko zarete. Hau egiaztatzeko eta ikasgaiaren gaitasunak lortu dituzuela egiaztatzeko aurkezpenak, dossierrak eta testa erabiliko ditugu, baina baita talde bakoitzarekin izandako elkarrizketetan azalduko diren jarrerak eta joerak ere aztergai izango dira.

Ikasgaia gainditzeko minimoak honako hauek dira: jardueretan aparte hartzea, entregagai guztiak epean eginak eta aurkeztuak izan behar dira, klasera joatea derrigorrezkoa da.

Lankideki aritzeko beharra eta gomendioak

1. Hasieratik proiektua aurrera ateratzeko, lan kopurua dela eta, elkarren beharra izango duzuela argi izan behar duzue (interdependentzia positiboa). Hau puzzlearen bitartez ere egiaztatuko dugu.
2. Bilerak. Rolak ezarri eta aldatuz joan beharko duzue; hiru izanda, idazkaria, inplikatzailea eta denbora neurtuko duena (interdependentzia positiboa).
3. Talde kideen artean betebeharrak banatu arren denak denaren jakinpean egon behar dira, testak eta aurkezpenetan edozeini galdetu ezker denak erantzuteko gai izan beharko dira. Bakoitzak duen aurre ezagutza eta trebetasunak talderen jakinpean izango dira, honela taldea eratzean bakoitzak eman dezakeena aztertuko dute (banakako eskakizuna).
4. Taldeka elkarrekin lan egitean, bai gelan baita kanpoan ere, zuen arteko interakzioa bultzatuko da (interakzioa).
5. Talde lanaren autoebaluaketaren bitartez, taldearen funtzionamenduari buruzko hausnarketa egiten da (talde hausnarketa).
6. Talde barruan sortutako arazoak eta zalantzak argitzeko antolatutako tutoretzetan trebetasun interperstonalak landuko dira.

Klaseko jarduerak

Ikasi eta ikasketa emaitza egokienak lortzeko egin beharreko jarduerak 3 taldetan banatzen dira, ikasgaiaren edukiak denboran zehar garatzen diren heinean burutuko direnak.

1. Klaseko lehen egunean:

- Aurreko ezagutzen galdetegia irudiak euskarri bezala erabiliz egingo da; grafikaren inguruko azterketa kritikoa, plastikoa eta teknikoa.

- Proiektuaren eszenatokia aurkeztuko da eta hau aurrera eramateko zer dakigun eta zer ikasi behar dugun erabakiko dugu.
- Ikasketako helburuak zehaztuko dituzte.
- Taldeak eratu eta ondo aritzeko jarduerak antolatuko dira (eraketa, konpromisoa, bileren aktak, ebaluaketak, etab).

2. Ikasgaian zehar

- Taldeka proiektua garatzeko jarraitu beharreko pausoei buruzko eztabaida eta klasean talde bakoitzak zelan egingo duen azalduko du.
- Gaien araberrako informazio bilaketak (puzlea erabiliz, CD eta Koadernoan)
- Talde osorako, bilaketen inguruko eztabaida gidatu, galderak eginez eta taldeka erantzunez (taldeko batek guztien izenean erantzun beharko du, honela banakako eskagarritasuna neurtu ahal izango dugularik).
- Taldeak burututako ariketen karpeta.
- Lankide Foroak arazoak eta zalantzak argitzeko (moodle).
- Bereganatutako ezagutza teknikoa eta teorikoa taldeko ahozko galdetegia
- Proiektuaren inguruko talde bakoitzaren Brainstorming (CD eta koadernoan bildu)
- Informazio eta baliabideen iturriak kolaboratiboki eratzea (web loturak, programak, tresnak, katalogoak, berriak, ea)
- Jarduera kooperatiboa: triptikoa (klasekideei beren proiektua aurkezteko eskura emango dioten inprimakia: bertan testu laburtua eta irudiak erabiliz era erakargarri batean beren proiektua azaldu beharko dute; nolabait beren erakusketa sustatu eta ezagutzera eman aurkeztu baino lehen).
- Proiektuaren bitarteko egoeraren aurkezpena, lanaren antolakuntza, arazoak, egutegia, ea.

3. Azkeneko klaseetan

- Proiektuaren azken emaitzaren aurkezpen publikoa.
- Klase kideen balorazioa.
- Norberaren ebaluaketarako galdetegia.
- Garatutako koadernoak, karpeta eta DVD edo CDa (barnean, proiektuaren memoria eta proiektuaren garapenari dagozkion dossierrak egongo dira, baita proiektuaren aurkezpenak, pdf edo Powerpointean DVD edo CD batean ikus entzunezko materiala, bilaketak, ea, bilduko dituztelarik) ere. Hauek kurtsoan zehar osatuz joan beharko dira.

Proiektuari dagozkion gaitasunak jardueretan bereganatu dituzuela egiaztatzeko entregagaiak ebaluatuko dira.

Sortzen diren gaiak zeuen kabuz garatuz joango zarete, gero klasean aurkeztu eta eztabaidatzeko. Klase kideen parte hartzea bultzatzeko, gaiak aurkeztean aurkezleek klase kideei galderak egingo dizkiete.

5) Entregagaien zerrenda eta behin behineko emaitzak

B-bakarkako entregagaiak **T**-taldeko entregagaiak

Asteroko entregagaiak antolatuko dira.

1. astea	<ul style="list-style-type: none"> - Taldekide bakoitzaren aurre ezagutza (fitxa) B - Taldeak antolatu (adostasuna, kontratua prestatu eta sinatua) T - Irudi, iturri eta baliabideen bilaketan lehen emaitzak (artxibategi digitala).T
2. astea	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektua aurrera eramateko eta garaiz aurkeztu ahal izateko eginbeharren <u>egutegia</u> (ordu ez presentzialetan klase kanpo egingo diren talde bilerak zehaztuz) T - Lehenengo galdera eragilearen inguruko aurkezpena (txostena pdf) T - Proiektuaren lehen ideien aurkezpena (Brainstormingaren emaitza, aurre irudiak eta behar tekniko eta materialen aurkezpena) T
3. astea	<ul style="list-style-type: none"> - Aurreko klasean sortutako galderen inguruko aurkezpena (txostena, koaderno eta artxibategi digitala osatuz) T
4. astea	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren bitarteko egoeraren aurkezpena T - Aurreko klasean sortutako galderen inguruko aurkezpena (txostena, koaderno eta artxibategi digitala osatuz) T
5. aste	<ul style="list-style-type: none"> - Tailerrean burututako lan praktikoen karpeta T
6. astea	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago entregagairik
7. astea	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dago entregagairik
8. astea	<ul style="list-style-type: none"> - Triptikoa. T - Proiektuaren azken emaitzen aurkezpen publikoa T - Dokumentazioa osoa (aurkezpen definitiboa, karpeta, CD edo DVD, koaderno) - Bakarkako eta taldearen ebaluaketa. B (+ ERAGIN inkesta)

Entregagaiak epe barruan eramatea eta aurkeztea ezinbestekoa da. Alde batetik, ebaluaketa jarraia egin ahal izateko, baina baita lana zer moduz doan jakiteko. Behin behineko emaitzak ezagutu daitezke eta zuzenketak egin, beti ere ikasi eta hobetzeko asmoarekin.

6) Ebaluaketa eta notak jartzeko jarraituko diren irizpideak

Ebaluaketa jarraia izanik, ikasleak hobetuz joango direla espero da. Entregagaien garrantzia edo nota kopurua handituz joango da, ikasgaia garatu ahala, garrantzitsuena proiektuaren aurkezpena eta azken emaitza izanik (dossierrean bilduko dena). Ebaluaketa jarraia egiteko eskubidea izango dute, klasera joatea derrigorrezkoa dela eta parte hartu behar dutela argi izanik.

Ikasketa helburuak lortu dituztela egiaztatzeko Entregagaiak erabiliko ditugu, baina baita tutoretzetan izandako elkarrizketak ere. Talde bakoitzarekin hiru saio izaten ahaleginduko gara, bai proiektuari dagozkion arazoak eta zalantzak argitzeko eta bai taldearen dinamikari dagozkionak ere. (OHARRA: Tutoritzako orduak ez dira klase partikularrak)

Entregagai batzuk ikasgaia ulertu eta ezagutza bereganatu duzuela egiaztatzeko irizpideak dira.

Entregagai hauek ikasteko ariketak bezala ulerturik, proiekturako egokitu eta hobetu daitezke. Era honetan ezagutza bereganatu eta landutako gaiak zuenganatu duzuela egiazta dezakegu, askatasun osoz tresnak, baliabide teknologikoak eta materialak beren helburua den proiekturako maneiatu eta eraldatu dezakezuelako.

Entregagaien arabera hauen kalitatea neurtzeko parametro desberdinak errubriken bitartez erabiliko dira: kalitate plastikoa, proposamen berritzailea, ongi ikertua, iturrien aberastasuna, erabilitako baliabideen aniztasuna, interesa, ikasitakoa bereganatzea egiaztatzea, beren kabuz lan egiteko gai izatea (tailerrean eta tailerretik kanpo), ea.

Proiektuak, ikasgaiaren erdia hartzen du, baina azken notaren erdia suposatzen duen arren, burutua eta gaingitua izan behar da ikasgaiaren hurrengo atalari aurre egin ahal izateko. Taldekide guztiak nota bera izan dezakete, baina talde lanean arazoak izan baldin badira, nota taldekide bakoitzarentzat desberdina izan daiteke. Hau neurtzeko edo egiaztatzeko tutoritzako bilerak, 9. eta 10. eranskinak erabiliko ditugu.

Proiektua dagokion epean arrazoi indartsu batengatik (gaixotasunak, arazo teknikoak, ea) ezin bada aurkeztu, aurkezpena 2 aste atzeratu ahal izango da; baina ez da inoiz ikasgaiaren amaieran aurkezteko aukerarik izango. Derrigorrezkoa da beste klasekideen aurkezpenean izatea eta parte hartzea, besteen lanari gureari adina errespetu izango diogu beti.

Notak

- Bilaketen txostenak eta bitarteko egoera (1 puntu)
- Egutegia, proposamenak eta bitarteko aurkezpena (1 puntu)
- Karpeta, ariketa praktikoak (2 puntu)
- Triptikoa edo diptikoa, proiektuaren azken emaitza eta aurkezpen publikoa (4 puntu)
- Dokumentazio digitala eta koadernoak (2 puntu)
- Ahozko galdetegia (+ edo -) negatiboa izanik errepikatzeko aukera izango da



7) Proiektuaren plangintza

Klaseko egutegitik aparte, proiektua aurrera eraman ahal izateko hasieratik talde bakoitzak egutegi bat antolatu beharko dute.

	Astero klasean (4 ordu) bi egunetan banandua Bateratutako mintegia eta tailer industrialia	Klasetik kanpo (6 ordu)
1. ASTEA	<ul style="list-style-type: none"> — Ikasgaiaren programaren aurkezpena — Aurreko ezagutzen galdetegia irudiak euskarri bezala erabiliz egingo da; grafikaren inguruko azterketa kritikoa, plastikoa eta teknikoa) Ikasleen fitxa bezala erabiliko da. (aurkeztu beharrekoa) — Tadeen eraketa. Taldea adostu eta ondo aritzeko jarduerak antolatuko dira (eraketa, konpromisoa, bileren aktak, ebaluaketak, ea) aurkeztu beharrekoa — Proiektuaren eszenatokia aurkeztuko da: hau aurrera eramateko zer dakite eta zer ikasi behar dute? 	<ul style="list-style-type: none"> — Taldearekin konpromisoa adostu (kontratua eratu eta sinatu) — Galderen zerrenda prestatu (zein jakintza eta trebetasunak behar dituzte proiektuari aurre egiteko). — Klase orokorrerako, bilaketen inguruko eztabaida gidatu egiteko, galderak prestatu, taldeka erantzun ahal izateko <p><u>Hurrengo asterako</u></p> <ul style="list-style-type: none"> — Erakusketarako zein proposamen egiteko ideiak bota eta batekin geratu beharko dira (Brainstorming). Klasean aurkeztu ahal izateko beharrezko ikus entzunezko

	<ul style="list-style-type: none"> — Ikasketako helburuak zehaztuko dituzte. Beharrezko betekizunetatik sortutako galderak klasean landu beharreko gaiak izango dira. Puzzlearen bitartez prestatu beharko dute (puzlea zertan datza azaldu) — Beren aldetik galderarik sortzen ez bada hurrengo klaserako prestatu beharrekoa: 1. Galdera eragilea. Zertan datza copy-grabatua? Photoshoparen bitartez irudiak garatuko ditugunez, nola egiten dira hautaketak eta zatiketak? — Talde bakoitzari koadernoan emango zaie 	<p>materiala prestatu</p> <ul style="list-style-type: none"> — Egutegia antolatu eta adostu beharko dute (hurrengo asterako) entregagaia
<p>2. ASTEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Proiekturako lehen ideia eta jarraituko duten egutegia edo lan plangintza aurkeztu beharko dute koadernoan sartu (entregagaia) — Taldeka proiektua garatzeko jarraitu beharreko pausoen eztabaida eta klasean talde bakoitzak azaltzea <hr/> <ul style="list-style-type: none"> — Sortutako galdera eragilearen taldekako aurkezpena eta eztabaida. Copy-grabatua: teknika, tresna, material eta baliabideen erakusketa praktikoa eta taldeen praktika. (txostena) — (2. galdera eragilea edo beraiek azal dutako gaia: Zertan datza transferra, fotoxilografia eta irudi modularra?) 	<ul style="list-style-type: none"> — Lankide Foroak arazoak eta zalantzak argitzeko (moodle) — Informazio eta baliabideen iturriak laguntzaileki eratzeari (web loturak, programak, tresnak, katalogoak, berriak, ea) <p><u>Hurrengo asterako</u></p> <ul style="list-style-type: none"> — Praktikarako materiala eta irudiak prestatu — Galdera eragilea landu edo sortutako bestelako galderak puzzlearen bidez landu (rolak ezarri eta bileraren txostena egin)

<p>3. ASTEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> — 2. galdera eragilearen taldeko aurkezpena eta eztabaida. — Zalantzak argitu <hr/> <ul style="list-style-type: none"> — Tailerrean lan praktikoa (matrizeak eratu eta estanpatu) — (3. galdera eragilea: Zertan datza serigrafia eta zer suposatzen du irudiak tramatzeari? klasetik kanpo hurrengo asterako lantzeko) — Hurrengo asterako proiektuen lehen asmoak aurkeztu behar dituzte, horretarako beharrezko ikusentzunezko euskarriak erabiliko dituzte. Dokumentatu eta gaien inguruan ikertu behar dute. Talde bakoitzak gutxienez 5 galdera prestatu behar ditu beste taldeei egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> — Praktikarako materiala eta irudiak prestatu <p><u>Hurrengo asterako</u></p> <ul style="list-style-type: none"> — Galdera eragilea landu edo sortutako bestelako galderei buruzko puzzlea (rolak aldatu eta bileraren txostena egin) — Tailerrean eta ordenagailuetan lan praktikoa burutzea
<p>4. ASTEA</p>	<p>ERAGIN tutorearen bisita</p> <ul style="list-style-type: none"> — Proiektuen lehen asmoen aurkezpen publikoa Taldeko proiektuen erreferenteak eta baliabideak aurkeztu. <hr/> <ul style="list-style-type: none"> — 3. galdera eragilearen aurkezpena taldeka puzzlea — Tailerrean eta ordenagailuetan lan praktikoa burutzea 	<ul style="list-style-type: none"> — Proiekturako beharrezko baliabideak mugatu eta teknika egokitu. — Erreferente artistikoen zerrenda osatu (10 artista 10 irudi, erreferente bibliografikoak, web, proiektuaren parte bat izango da, dokumentazioaren parte digitalki) — Karpeta osatu eta estanzazioak bukatu

5. ASTEA	<ul style="list-style-type: none"> — Serigrafiako tailerrean lan praktikoa 	<ul style="list-style-type: none"> — Talde lana (proiektua garatzeko beharrezkoa dena argazkiak atera, estanpatu, inprimaketa digitala, filmatu, ea) <p><u>Hurrengo asterako</u></p> <ul style="list-style-type: none"> — Aurkezpenen pdf eta bileren txostenak aurkeztu
6. ASTEA	<ul style="list-style-type: none"> — Jarduera laguntzailea: triptikoa (klase kideei beren proiektua aurkezteko eskura emango dioten inprimakia, bertan testu laburtuta eta irudiak erabiliz era erakargarri batean beren proiektua azaldu beharko dute; nolabait beren erakusketa sustatu eta ezagutzera eman aurkeztu baino lehen) — Serigrafiako tailerrean kuartrikromiak bukatu eta irudi berriak prestatu — Quizz. Ahozko talde galdetegi lehiaketa — Proiekturako tailerretan eta ordenagailuetan lana 	<ul style="list-style-type: none"> — Triptikoa prestatzen joan — Talde lana (proiektua garatzeko beharrezkoa dena argazkiak atera, estanpatu, inprimaketa digitala, filmatu, ea) — Proiektuarekin jarraitu, aurkezpen publikoa prestatu eta dokumentazioa garatu <p><u>Hurrengo asterako</u></p> <p>Talde lana (proiektua garatzeko beharrezkoa dena argazkiak atera, estanpatu, inprimaketa digitala, filmatu, ea)</p>
7. ASTEA	<p>Proiekturako tailerretan eta ordenagailuetan lana</p> <hr/> <p>Proiekturako tailerretan eta ordenagailuetan lana</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Proiektua bukatu — Aurkezpenenerako beharrezko materiala eta espazioa prestatu — Taldearen ebaluaketako galdetegia

8. ASTEA	<ul style="list-style-type: none">— AURKEZPENAK (behar duten ikusentzunezko baliabideak erabiliz, erakusketa montatuz, ea.) Lehenengo Klasekideen artean triptikoak edo diptikoa banatu— Klase kideen eta taldeen inkestak (entregagaia)— ERAGIN inkesta— Norberaren ebaluaketarako galdetegia— Karpeta, koaderno, dokumentazio digitala (pdf edo Powerpointean DVD edo CD batean, proiektuaren aurkezpena, ikus entzunezko materiala, bilaketak, ea, bilduko dituztelarik) bukaerako bilketa entregagaia
----------	--

8) Baliabideak eta materialak

Proiektua garatzeko beharko dituzten materialak, liburuak, aldizkariak,... eta beraiek sortutakoak

8.1) Irakasleak eskura jarriko dituenak

- Proiektua eta gaien inguruko galdera eragilea eta eszenatokia
- Euskaratutako hiztegi teknikoa eta materiala
- Prozeduren aurkezpen teoriko praktikoaren adibideak
- Bibliografia orokorra
- Aldizkariak eta bestelako argitalpenak
- Linkak: Calcografía Nacional, World Printmakers, ...

OHARRA. Baliabide guzti hauek moodle plataforman eskura izando dituzue. Bertan egunero klasean zer gertatuko den eta klasetik kanpo burutu beharreko lanaren adierazleak argitaratuko dira, behin klasea izan ondoren. Elkarrekin kontaktuan egoteko foroa erabiliko da, baita dokumentuak konpartitzeko eta tutoritzetarako datak ezartzeko.

8.2) Ikasleek taldeka prestatutakoa

- Gaien inguruan ikasleek prestatutako aurkezpenak edo txostenak (moodle plataformara igo eta klase kideekin konpartituko dituztenak)
- Bilaketan artxibo digitala: sarean bilaketak Link-ak, bideoak, ea
- Bibliografia zehatza
- Erreferente artistikoak
- Ikus entzunezko materialak

Bestelako material aipagarria, berezia edo interesgarria: ekitaldi artistikoak, lehiaketak, elkarten informazioak, tailerrak, ikastaroak, ea

8.3) Bestelako baliabideak

(erabilera prestakuntza, ordutegi eta beste ikasgaien arabera)

- Grabatuko tailerra grabatuko teknika desberdinak garatzeko tresna eta materialekin (serigrafia, copy-grabatua, xilografia, ea.)
- Ordenagailuak programa desberdinekin (Photoshop, In-Design, Flash, Dream Weaver...)
- Eskanerra eta inpresorak (DINA4 eta DINA 3)
- Argazki eta bideokamera digitalak
- Fotokopiagailua eta ploterra
- DVD erreproduzizaileak eta bideo proiektoreak
- Argiko maiak, papera eta xaflak ebakitzeko gillotina desberdinak

ERANSKINAK

1. Eranskina. Estenatokia

OHARRA: 2012KO ESTAMPAKO DEIALDIAN TENTACIONES 2011 BEZALA AGERTZEN DA (WWW.ESTAMPA.ORG)



La XIII edición de esta convocatoria está comisariada por Karin Ohlenschläger quien seleccionará los trabajos presentados antes del 25 de julio.

LA FERIA ESTAMPA CONVOCA TENTACIONES 2011, LA SECCIÓN DEDICADA A DAR A CONOCER ARTISTAS EMERGENTES

ESTAMPA, la feria internacional de arte múltiple contemporáneo que se celebra en Madrid del 20 al 23 de octubre, ha convocado Tentaciones 2011. Esta sección de arte emergente muestra cada año los proyectos más innovadores en el ámbito de la obra de edición y del arte múltiple, así como la investigación y creación en las zonas fronterizas entre las más diversas técnicas, soportes y prácticas artísticas.

La presente convocatoria, comisariada por Karin Ohlenschläger, valorará aquellos proyectos y obras que planteen y cuestionen la reproductibilidad técnica, puesta en juego por Walter Benjamin hace setenta y cinco años, ampliando su significado en nuestra vertiginosa era de la informática y las telecomunicaciones.

Tal y como señala la comisaria: "El concepto de Vidas Múltiples constituye el hilo conductor de esta nueva convocatoria de Tentaciones. La vida en su dimensión biológica, social, política y cultural es parte integrante del arte. Es múltiple en sus dinámicas, formas y contextos, pero múltiple, igualmente, en su código y lenguaje, en su estructura y en sus dinámicas relacionales e interdependientes. Y múltiple, por ende, también en su discurso, experiencia y conocimiento. Por tanto, el criterio de valoración de esta convocatoria de Tentaciones, considerará cualquier propuesta de arte múltiple, sea esta una serigrafía, una fotografía, una obra audiovisual, un robot, una instalación, un proyecto para Internet o para teléfono móvil, un entorno virtual, un software, o una obra sonora. El hecho es que los actuales dispositivos digitales no solo emulan cualquier técnica tradicional de producción de imágenes, sonidos y textos. También generan y reproducen estructuras y formas de vida a través de los más diversos procedimientos informáticos o biotecnológicos"

2. Eranskina: Erakusketa proiektua ebaluatzeko errubrika

Lortutako maila				
Irizpidea	3 Bikaina	2 Nahikoa	1 Gutxi	Puntu kopurua
Irakasleak emandakoaz gain informazio osagarriaren bilketa 10%	Ikasleek informazio osagarria bildu dute, iturri elektronikoak edo inpreso ugariak erabiliz. Iturri horiek aipagarriak eta egokiak dira. Behar bezala adieraziak eta izendatuak.	Ikasleek informazio osagarria bildu dute, iturri elektronikoak edo inpresoak erabiliz. Kasu gehienetan hauek aipagarriak eta egokiak izan dira. Izendatzean informazioa falta da.	Ikasleek informazio osagarria bildu dute, iturri elektronikoak edo inpreso gutxi erabiliz. Kasu gehienetan hauek ez dira ez aipagarriak ezta egokiak ere. Betegarri bezala daude. Ez dira izendatzen.	
Analisiak Bitarteko egoera 10%	Ikasleek bildutako informazioa analizatu dute eta lana burutzeko daturik aipagarrienak atera dituzte.	Ikasleek bildutako informazioa analizatu dute eta, gehienetan, lana burutzeko daturik aipagarrienak atera dituzte.	Ikasleek bildutako informazioa ondo analizatu ez dutenez ez daukate lan praktikoa burutzeko datu nahikorik.	
Sintesia Egutegia 10%	Ikasleek datu aipagarriak modu logikoan antolatu dituzte, ideia nagusien arteko lotura asko eginez.	Ikasleek, orokorrean, datu aipagarriak modu logikoan antolatu dituzte, ideia nagusien arteko lotura batzuk eginez.	Ikasleek datu aipagarriak bigarren mailakoetatik banandu ez dituztenez, dossiera oso nahasia da.	

Lortutako maila				
Irizpidea	3 Bikaina	2 Nahikoa	1 Gutxi	Puntu kopurua
Dokumentazioa (analogikoa eta digitala) 30%	<p>Ikasleek osatutako dokumentazioan proiektuak jasan duen garapena azken emaitzaraino ongi eta argi azaltzen du.</p> <p>Ongi dokumentaturik dago eta ondo antolatua</p> <p>Formatua proiektuari ongi egokitua</p>	<p>Ikasleek osatutako dokumentazioan proiektuak jasan duen garapena azken emaitzaraino orokorrean argi azaltzen du.</p> <p>Dokumentazioa ondo dago eta nahiko antolatua</p> <p>Formatua proiektuarekin egokitzen ahalegindu dira</p>	<p>Ikasleek osatutako dokumentazioan proiektuak jasan duen garapena azken emaitzaraino ez da ondo azaltzen, nahaspilatsua eta eskasa da</p> <p>Ez dago ondo dokumentaturik, gaizki antolatua</p> <p>Formatua ez dator proiektuarekin bat, edozein</p>	
Produktua Prozesua 40%	<p>Lortutako emaitza ona, berritzailea eta interesgarria da.</p> <p>Ongi asmatua, garatua eta burutua.</p> <p>Ikasgaien landutako baliabide teknikoak eta materialak ongi erabili dituzte.</p>	<p>Lortutako emaitza ondo dago. Gatatzea eta burutzea lortu dute.</p> <p>Ikasgaien landutako baliabide teknikoak eta materialak erabili dituzte.</p>	<p>Lortutako emaitza ez da espero zena.</p> <p>Gutxi pentsatua eta behar adina denbora sartu gabe</p> <p>Ikasgaien landutako baliabide teknikoak eta materialak ez dituzte nola erabili jakin izan.</p>	

3. Eranskina: Taldearen karpeta praktikoa ebaluatzeko errubrika

Lortutako maila				
Irizpidea	3 Bikaina	2 Nahikoa	1 Gutxi	Puntu-
Asistentzia 20%	Denak elkarlanean aktiboki aritu dira. Denen artean irudiak aukeratu, matrizeak eratu eta estanpatu dituzte. Interes handia erakutsi dute.	Gehienak elkarlanean aktiboki aritu dira. Irudiak aukeratzeko ez dira guztiz ados jarri, arazoak egon dira matrizeak eratu eta estanpatzean. Interesa dute.	Taldekide batzuk askotan ez dira tailerretik azaldu ezta eskuak zikindu ere egin. Ez dute elkarrekin erabakiak hartu. Ez dute inolako interesik.	
Aukeratutako eta landutako irudiak 20%	Irudi propioak erabili dituzte, proiekturako bideratuak. Lan prozesu bakoitzera ongi moldatu dituzte.	Irudiak ahutzean arazoak egon dira. Lan prozesu bakoitzera nahiko ondo moldatu dituzte.	Edozein irudi hartu dute, inolako interesik gabe. Lan prozesu bakoitzera ez dituzte bat ere moldatu	
Trebetasun teknikoa 20%	Euskarri desberdinetan eta baliabide bakoitzean ongi moldatu dira. Matrizeak eratzeko eta estanpatzeko gai dira.	Euskarri desberdinetan eta baliabide bakoitzean moldatu dira. Matrizeak eratzeko eta estanpatzeko gai dira.	Euskarri desberdinetan eta baliabide bakoitzean ez dira moldatu. Matrizeak eratzeko eta estanpatzeko ez dira gai.	

Lortutako maila				
Irizpidea	3 Bikaina	2 Nahikoa	1 Gutxi	
Estanpen edo inprimakien kalitatea eta txukuntasuna 20%	Konposaketak anitzak eta interesgarriak dira. Teknika guztietan estanpazioak garbiak dira.	Konposaketak desberdinak dira eta ahalegina dago Ia teknika guztietan estanpazioak garbiak dira.	Konposaketak sinpleak dira eta inolako ikerketarik gabekoak. Teknika guztietan estanpazioak nahiko zikinak dira.	
Beren kabuz lan egiteko gaitasuna 20%	Baliabide analogiko eta digitalak ondo ezagutzen dituzte. Tresnak eta materialak ongi izendatzen dituzte. Karpeta ongi antolatuta eta garatuta dago	Baliabide analogiko eta digitalak ezagutzen dituzte. Tresnak eta materialak arazoren batekin izendatzen dituzte. Karpeta antolatuta dago.	Baliabide analogiko eta digitalak ez dituzte behar bezala ezagutzen. Tresnak eta materialak ez dituzte behar bezala izendatzen. Karpeta ez dago antolatuta.	

4. Eranskina. Ahozko aurkezpena ebaluatzeko errubrika

Irizpidea	Lortutako maila			Puntu kopurua
	3 Bikaina	2 Nahikoa	1 Gutxi	
Antolakuntza	Aurkezpena argia, eta logikoa da, eta ondo egituratuta dago. Entzuleek arrazoiketa erraz jarraitu	Orokorrean aurkezpena argia eta logikoa da, eta ondo egituratuta dago. Aspektu batzuk ez daude oso argi.	Entzuleek aurkezpena jarraitzeko arazoak dituzte. Ideia batzuk ez daude bat ere argi. Egitura ez da nabaritzen	
Estiloa 10%	Aurkezpen-maila entzuleentzat aproposa da. Hizlariak ideiak erritmo egokian aurkezten ditu. Ez du irakurtzen. Taldearen aurrean eroso dago eta	Aurkezpen-maila entzuleentzat orokorrean aproposa da. Erritmoa, noizbehinka, azkarregia edo geldoegia da. Nabaria da hizlaria ez dagoela eroso eta	Aurkezpeneko alderdi batzuk entzuleentzat sinpleegiak edo zailegiak dira. Entzulea ez dago bat ere eroso eta entzuleek oso adi daudenean baino ez dute entzuten. Informazio gehiena	
Ikus-entzunezko errekurtsoen erabilera. (ad. Powerpoint) 20%	Erabilitako errekurtsoek kalitate oneko aurkezpena sortzen dute. Modu profesionalean prestatuta daude: aukeratutako letraren tamaina egokia da. Informazioa ondo antolatuta dago eta gaia ulertzen	Erabilitako errekurtsoek kalitate oneko aurkezpena sortzen dute. Aukeratutako letraren tamaina egokia da. Garrantzizko informazio guztia ez da sartu.	Errekurtsoak kalitate eskasekoak dira edo txarto erabiltzen dira. Letra txikiegia da, irakurtzea zail eginez. Informazio gehiegi sartu da. Bigarren mailako informazioak pisu gehiegi dauka. Entzuleek aurkezpena ulertzeko arazoak dituzte.	
Edukiaren sakontasuna 10%	Hizlariak kontzeptu eta teoriarik nagusienak modu zehatz batean azaltzen ditu, bibliografiarik aipagarrienean eutsiz, eta praktikarekin lotuz.	Hizlariak kontzeptu eta teoriarik nagusienak orokorrean modu zehatz batean azaltzen ditu, Noizbehinka praktikarekin lotzen ditu.	Kontzeptu eta teorien azalpena ez da zuzena ezta osorik ere. Ez da saiatzen teoria praktikarekin lotzen. Entzuleek aurkezpenetik gutxi ateratzen dute.	

Lortutako maila				
Irizpidea	3 Bikaina	2 Nahikoa	1 Gutxi	Puntu
Edukiaren zehaztasuna 10%	Aurkezpeneko informazioa (izenak, gertaerak) zehatza eta osoa da.	Ez dira akats handirik egiten, baina entzuleriak urduritasuna edo hanka-sartzeren bat nabaritzen du.	Gaia ezagutzen duen entzule baten arreta deitzeko akats nahikorik egiten dira. Honek entzundako informazio guztia zehatza den zehaztera	
Sintaxia 10%	Esaldiak osorik daude eta aurkezpena jariakorra da. Hitzak kontuz aukeratu dira adierazi nahi denaren arabera .Ez dira akats gramatikalik egiten.	Orokorrean esaldiak osorik daude eta aurkezpena jariakorra da. Salbuespen gutxiekin hitzak adierazi nahi denaren arabera aukeratu dira.	Entzuleek aurkezpena jarraitu ahal dute baina akats gramatikalek eta hizkuntza arruntak arreta galarazi diete. Esaldi batzuk bukatu gabe daude eta erabilitako hiztegia ez	
Kontaktu bisuala 10%	Hizlariak entzuleekin kontaktu bisuala mantentzen du, oharrak gutxitan erabiliz.	Hizlariak entzuleekin kontaktu bisuala gehienetan mantentzen du, baina oharrak maiz erabiltzen ditu.	Hizlariak aurkezpen gehiena irakurtzen du, entzuleekin oso kontaktu bisual gutxi mantenduz.	
Ahozko interakzioa 10%	Hizlariak kontzeptuak argitzen eta sakontzen ditu eta galderak erantzuten ditu. Beharrezkoa denean azaldutakoaren laburpena egiten du.	Orokorrean hizlariak bai kontzeptuak sakontzen eta argitzen dituela eta galderak erantzuten dituela.	Galderak modu desegoki batean erantzuten ditu.	
Taldeko interakzioa 10%	Taldekideen arteko aldaketa modu antolatu batean egiten da, aurkezpena gelditu gabe.	Taldekideen arteko aldaketa modu nahiko antolatu batean egiten da	Taldekide batzuek ez dute parte hartzen aurkezpenean.	

Oharra: Atal bat bete gabe uzten bada 0 batekin baloratuko da.

5. Eranskina. Triptikoa edo diptikoa ebaluatzeko errubrika

Lortutako maila				
Irizpidea	3 Bikaina	2 Nahikoa	1 Gutxi	Puntu- kopurua
Informazioaren antolakuntza 30%	Informazioa ondo antolatua dago. Proiektuaren ideia, garapena eta emaitza ongi azaldu eta laburtzen du.	Informazioa antolatua dago. Proiektuaren ideia, garapena eta emaitza azaldu eta laburtzen du.	Informazioa ez dago ongi antolatua. Proiektuaren ideia, garapena eta emaitza ez dira behar bezala azaltzen edo laburtzen.	
Maketazioa 20 %	Irudiak eta testua era ulergarri eta erakargarri batean kokatu dituzte Erakusketa ikusteko jakin mina pizten du.	Irudiak eta testua era ulergarri batean kokatu dituzte. Nahiko arrunta. Erakusketa ikusteko jakin mina ia pizten du.	Irudiak eta testua ez daude era ulergarri eta erakargarri batean kokatuta. Nahaspilatsua da. Ez du erakusketaren gain inolako interesik sortzen.	
Inprimaketa 20 %	Oso ondo egina eta bukatua. Baliabide egokiak erabili dituzte.	Ondo egina eta bukatua. Baliabideak behar bezala erabili dituzte.	Ez dago behar bezala egina. Ez dituzte eskura dauden baliabideak erabili.	
Itxura originaltasuna eta 30 %	Modu erakargarri batean azaltzen da. Formatu eta euskarri berezia eratu dituzte Proiektuarekin bat dator.	Modu berezi batean azaltzen ahalgindu dira. Formatu eta euskarria arruntak dira Proiektuarekin bat dator.	Ez dute ezer berezirik egiten ahalgindu. Ez dator bat proiektuarekin	

6. Eranskina: Lan kooperatiboa ebaluatzeko errubrika(Taldeko funtzionamendua)

Lortutako maila				
Irizpidea	3	2	1	Puntu-kopurua
Asistentzia 20%	Gehienak, denak ez badira, taldeko bileretara joaten dira.	Gehienak bilera gehienetan egoten dira. Joan ezin badira besteei esaten diete eta haiekin ados jartzen dira lan egiten jarraitzeko.	Taldekide batzuk askotan ez dira bileretara etortzen eta ez dituzte besteak informatzen.	
Parte- hartzea 20%	Taldeak burutu behar diren zereginak ondo definitu ditu, geroko beharrak aurreikusiz. Taldekide guztiek aktiboki parte hartzen dute, bai proiektuaren definizioan baita horren jarraipenean	Zereginak modu informalean definituta daude baina taldekide gehienek ulertzen dituzte. Gehienek parte hartzen dute baina proiektuaren jarraipena gutxitan egiten da.	Zereginak ez daude definituta eta taldekide gutxiak parte hartzen dute. Ez da egiten inolako jarraipenik.	
Taldekide bakoitzaren rolen definizioa. 20%	Taldekide guztien rolak ondo definituta daude eta denek ulertu dituzte. Taldekide bakoitzak besteei bere rola azaltzen die.	Taldekideen rolak informalki definitu dira eta denek ez dituzte ulertzen. Taldekide batzuek ezin dizkiete besteei haien rolak azaldu.	Ez dago bat ere argi zein den bakoitzaren ardura.	

Lortutako maila				
Irizpidea	3 Bikaina	2 Nahikoa	1 Gutxi	
Erabakia hartzea 20%	Erabakia hartzeko prozedura argi eta ondo dokumentatuta dago. Hauek ere dokumentatzen dira baita horiek hartzeko jarraitutako prozesua eta taldekideek hartutako konpromisoak ere.	Erabakia hartzeko prozedura modu informalean ezarri da eta ez da guztietan erabiltzen. Taldekide guztiak ez daude tartean sartuta.	Erabakia hartzeko prozedura erabiltzen ez denez, modu indibidual batean hartzen dira eta ez dituzte islatzen taldeko pentsamendua ezta nahiak ere.	
Taldekideen arteko harremanak 20%	Taldekide guztiak begirunez tratatzen dira. Denek besteen ideiak entzuten dituzte, besteen lana. Guztien lana aintzat hartzen da. Denek besteei laguntza eskatzen diete eta beharrezko galderak egiten dizkiete	Orokorrean taldekide guztiak errespetatzen dira nahiz eta batzuen iritziek pisu handiagoa izan. Besteen lanaren errekonozimendua ez dago planifikatuta. Pertsona batzuek ez daukate besteei laguntza eskatzeko konfiantza nahikorik.	Taldekideen arteko harremana kooperatiboa baino lehiatsu eta indibidualista da eta taldekide guztiek ez dute laguntza jasotzen.	



7. Eranskina: Ikaslearen Fitxa

Fakultateak eskaintzen dizkigun fitxak erabili beharrean honako hauek bete eta erabiliko ditugu.

Klaseko lehen egunean ikasle bakoitzaren "erretratu" zehatz batetara hurbiltzeko ondoko fitxa hau bete dezazuen eskatzen dizuegu.

Izena eta abizenak:	ZURE ARGAZKIA
Helbidea:	
Telefonoa:	
Erabiltzen oi duzun e-maila:	

Arteko Graduan matrikulatuta zaude, zein ikasgaiak hartu dituzu?

_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____
_____	_____

Minorrik egingo duzu ? Zein eta zergatik ? _____

Pisuan edo etxean egonda, ordenagailu propioa duzu ? PC edo MAC? _____

Zein programak dituzu? _____

Zein programak erabiltzen dakizkizu ? _____

Zer da matrizea? _____

Zer da irudi bat transferitzea? _____

Inprimaketa analogikoa eta digitala aipatzean zeri buruz ari garela iruditzen zaizu?

Zer da inprimaketa anitza?

Zer da multi-inter-transdiziplinaritatea?

8. Eranskina: Taldeko partaideen arteko kontratua

Proiektua taldekide guztien konpromisoa berarekin aurrera eraman ahal izateko kontratu bat prestuko duzue.

Lehenengo taldeari izena jarriko diozue, identifikatzeko eta taldea eratzeko adostu beharreko lehen pausoa izango delarik.

Ondoren kontratuak izango dituen puntuak edo atalak ezarriko dituzue. Honek hamar eta hamabi puntu bitartean izango ditu (ez bat gehiago ez gutxiago). Bertan, zuen hitzekin eta denen adostasunarekin, elkar lanean aritu ahal izateko hartu beharreko konpromisoak, beharrak eta nahiak adieraziko dituzue. Adibidez: asistentzia, bileren maiztasuna eta iraupena, arazoak sortu ezkeru nola jokatuko duzue, sartu edo erabiliko duzuen denbora eta dirua berdina izatea, ea.

Kopia bana aterako duzue eta denok sinatuko duzue. Irakaslearentzako kopia bat ere aterako duzue, honek guztietan "notario gisa" sinatuko du, bat berarentzat gordez.

Kontratu hau zeuentzako da. Irakasleak ez du ebaluatuko. Ezartzen dituzuen puntuak errealistak izan daitezen ahalegindu behar zarete. Adibidez, bileretara 100% asistentzia eskatzea ezinezkoa da, arazoak izan ditzakegu, berandu iritzi, ea. Ongi aritzeko eta nolabait lan dinamika bat hartzeko arauen gida bat da, errespetua eta gisabidetasuna ezinbestekoa izango delarik. Taldeko norbait epeak betetzen ez baditu edo erabakitako lana egin ez badu, aurrera jarraitzeko bidea edo aukera adierazi beharko duzue.

Denak ez gara berdinak eta artisten artean elkarlana oso zaila suerta daiteke. Baina ideia, lan egiteko era eta izaera desberdinak ditugun arren, elkarrekin eta elkarrengandik ikasi dezakegu elkarren osagarri bilakatuz. Hemen aukera paregabea duzue, aprobeztatu eta aurre ideiak alde batera utzi.

9. Eranskina. Taldearen funtzionamenduaren ebaluaketa

Taldearen izena: _____

	Beti	Maiztasunez	Noiz behinka	Gutxitan
Asistentzia eta bileren antolakuntza				
Bilerak gehienetan 5-15 minututako atzerapenarekin hasten dira				
Taldekideak berandu irizten dira, bukatu baino lehen joaten dira edo ez dira sekula agertzen.				
Ez dago agendarik edo egunean landu beharreko gaien gida.				
Taldekidea ez dituzte betebeharrak egiten eta bileretara prestatu gabe doaz.				
Parte hartzea eta rolak				
Lana zatitu edo banandu egin dugu.				
Norbaitek lan guztia beregain hartzen badu utzi egin diogu.				
Taldeko batek bilerak monopolisatzen ditu				
Errolak banatu eta bete dira				
Sortzen diren arazoak ez dira momentuan konpontzen, hurrengo bileretarako uzten dira.				
Erabakiak hartzeko prozesua				
Erabakiak hartzeko prozesuan arrazoiak argudiatu eta dokumentatu dira				
Lana ez da antolatzen. Ez dakite zeintzuk diren betebeharrak eta erantzukizunak				

Taldekideen arteko harremana				
Taldekide batzuk taldean gustora ez daudela argi adierazten dute eta giro txarra sortzen dute.				
Eztabaidetan ez diote elkarri entzuten.				
Lana garaiz aurkezteko edonola aritu gara, emaitza berdina zaigu.				

10. Eranskina. Taldekideak ebaluatzeko inprimakia

Inprimaki honetan agertzen diren galderen bitartez, talde lanean pertsonen aldetik azaldutako arazoak azpimarratu eta etorkizunean ekiditzeko nahiarekin egiten da. Asmoa ez da kidea nolabait salatzea, baizik eta lantaldean aktiboak eta kooperatiboak izan diren kideak identifikatzea, hau da ondo aritu direnak eta nortzuk ez. Pentsatu behar duzue, behar bezala aritu ez direnak taldeari kalte egin diezaiotela.

Taldearen izena: _____

Ikaslearen izena: _____

Azpimarratu deritzozun zenbateko egokiena:

1 – inoiz ez 2 – gutxitan 3 – noiz behinka 4 – gehienetan 5 – beti

- | | | | | | |
|--|---|---|---|---|---|
| • Bileretan aktiboki parte hartu du? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Bilerarako eraman beharreko lana prestatua darama? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Taldearen barruan bilera bakoitzean egokitutako errola bete du? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Bileretara etorri ahal izan ez denean alde zuzenetik abisatu du? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Nahiz eta bileretara noizbait ez joan bere lana eginda utzi du? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Bileretan ideia lagungarriak ematen ahalegintzen da? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Besteen ideiak eta iritziak entzun eta errespetuz kontutan hartzen ditu? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Taldean elkarlanean aritu da? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Taldean giro ona sortzen edo egon zedila ahalegindu da? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| • Taldearekiko kontratuan hartutako konpromisoak bete ditu? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

Goian emandako erantzunen arabera batez besteko emaitza

Primerakoa Lankide oso langilea eta oso lan ona egin du.

Oso ondo Adostutako lana beti bete du, oso ondo prestatua eta lankide ona da.

Ondo Normalki adostutako lan bete du, ongi prestatua eta kooperatiboa edo laguntzailea da.

Nahiko Maiz adostutako lana egin du, baina gutxi prestatua eta kooperatiboki aritzeko arazoak ditu.

Gutxi Batzuetan ez da bileretara azaldu, ez da prestatzen edo ez du lana bukatu.

Ez- nahiko Askotan ez da bileretara etorri. Azaldu denean ez ditu betebeharrak guztiak egin edo gutxi prestatu da.

Onartezina Gutxitan lan egin du eta ia ez du parterik hartu, berekoia.

Gutziz onartezina Ez du parte hartu, oso berekoia eta errespetu gabea.

11. Eranskina. Bibliografia

Oinarrizko bibliografia:

- ADAM, R. & ROBERTSON, C. *Screenprinting. The complete water-based system*. Londres: Thames & Hudson, 2003
- BØEGH, H. *Manual de Grabado no Tóxico*. Universidad de Granada, 2004
- ELLIOT, P. *Comtemporary art in Print*. Londres: Ed. Booth-Clibborn, 2001
- DAWSON, J. *Guía completa de grabado e impresión. Técnicas y materiales*. Barcelona: ed. Blume, 1982
- GRABOWSKI, B. & FICK, B. *El grabado y la Impresión. Guía completa de técnicas materiales y procesos*. Barcelona: ed. Blume, 2009
- GILMOUR, P.: *Artists in Print*. London: British Broadcasting, 1981
- TOBELLA SOLER, Josep. *Técnica y Práctica del Proceso Serigráfico*. Madrid: AEDES, 2002.
- PASTOR, J. *Electrografía y Grabado*. Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaina, 1989
- PASTOR, J & ALCALA, J. R. *Procedimientos de transferencia en la creación artística*. Pontevedra: Servc. de publicaciones Exema. Diputación de Pontevedra, 1997
- RIEMSCHEIDER, B. & GROSENICK, U. *Art at the turn of the Millennium*. Arte para el siglo XXI. Köln: ed. Taschen, 1999
- SACILOTTO, D. *Photographic printmaking*. New York: Watson-Guption Public., 1982
- TALLMAN, S. *The Comtemporary Print*. London: ed. Thames and Hudson, 1996
- VVAA. *Digital Art Studio*. New York: Watson-Guption Public., 2004

Bibliografía osagarria

- ALCALA, J. R. & CANALES, F. Ñ. *Copy-ART; la fotocopia como soporte expresivo*. Col. Para arte. Alicante: Diputación de Alicante, 1986.
- ALCALA, J. R. & CANALES, F. Ñ. *Los Seminarios de Electrografía*. Valencia: Universidad Politécnica, 1988
- CHAMBERLAIN, Walter., *Manual de Grabado en Madera y Técnicas Afines*, Ed. Hermann Blume, Madrid, 1988.

- BENJAMIN, W. *Discursos interrumpidos I. La obra de arte en la época de su reproductibilidad técnica*. Madrid: Ed. Taurus, 1973.
- CIANI, P. *Xerographia*. Udine: ed. Campanotto, 1985
- CHARBONNEU, J. *L'ére du Copie-Art*. Montreal: ed. Movitation, 1981
- ESTEVE BOTEY, F. *Historia del Grabado*. Barcelona: ed. Labor SA, 1993
- GASCOIGNE, B. *How to Identify a Prints*. Londres: Ed. Thames and Hudson, 1986.
- IVINS, W: H. *Imagen impresa y conocimiento. Análisis de la imagen prefotográfica*. Barcelona: ed. Gustavo Gili SA, 1975.
- KARSNITZ, J. R. *Graphic Arts Technology*. New York: Delmar Publ., 1984
- KREJCA, A. *Técnicas del grabado*. Madrid: ed. Libsa, 1990
- KOSLOF, A. *Photographic Screenprinting*. Ohio: Times publishing, 1981.
- KOSLOFF, A. *Impresión serigráfica*. Ohio: ST publicatios, 1993
- MUNARI, B. *Xerografie Originali; un esempio di sperimentazione sistematica strumentale*. Bologna: ed. Zanichelli, 1977
- RIGAL, Ch. *L'Artiste et le Photocopie*. París: ed. Galerie Trans/Form, 1988
- RIEMSCHEIDER, B. & GROSENICK, U. *Art at the turn of the Millennium*. Arte para el siglo XXI. Köln: ed. Taschen, 1999
- RUBIO MARTÍNEZ, M. *Ayer y hoy del grabado*. Sistemas de estampación. Tarragona: ed. Tarraco, 1979
- FIGUERAS, E. *El grabado no tóxico*. Barcelona: Publicacions i edicions de la Universitat de Barcelona, 2004
- VIVES, R. *Guía para la identificación del grabado*. Madrid: ed. Arco/libros SL, 2003
- WISNESKI, K. *Monotype/Monoprint*. New York: ed. Bullbrier Press. Ithaka, 1995

Baliabide didaktikoak eta bestelako materialak

Adizkariak

ART ON PAPER. Fanning Publishing Company Inc. New York. www.artonpaper.com

CONTEMPORARY IMPRESSIONS. American Print Alliance. Peachtree City AG.US.

[www. PrintAliance.org](http://www.PrintAliance.org)

EN SERIGRAFÍA. Ed. Digitec, s.L. Barcelona. España. Dep. L. B2207489.

www.alabrenet.es

GRABADO Y EDICIÓN. www.grabadoyedicion.es

PRINTMAKING TODAY. Cello Press Ltd. West End, UK. www.printmakingtoday.uk

SERIGRAFÍA. Ed. Press-Graph. Sabadel. España. www.pressgraph.es

Web orrialdeak

www.estampa.org

www.calcografíanacional.com

www.solograficas.com

www.spanischprintmakers.com

www.worldprintmakers.com

.....



Jodra, S. (2013). Grafika Teknologikoa. Erakusketa proiektua – IKD baliabideak 6 - <http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/ik/jodra-6-2013-ik.pdf>



Aitortu - Ez merkataritzarako -Partekatu baimen beraren arabera (by-nc-sa): Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.